

# EGĀN



4

1950

## SUMARIO

*Angel Iglesia:* Poemas varios.

*P. Salvatore Michelena:* Nere Izarrari.

*Juan María Lekuona:* Izaki Abestia.

*Santiago Onaindia:* Nere Zoriala.

*Artetxe'tar Joxe'ren:* Bidez-Eide.

*Antón Menchaca:* A diez y cuatro millas  
del Cabo Carvoeiro.

# A N G E L I G L E S I A

Nacido en la provincia de Ciudad Real en 1920, reside en Bilbao desde la infancia —con amplias estancias en la Tierra de Campos— y tiene publicado un cuaderno de poemas, preparando actualmente un libro. Su poesía está revuelta de vida, y en ella se mezcla el misterio con la ternura y cierta ironía que a veces roza el sarcasmo.

## *Casa*

Junto a la camilla  
con su brasero,  
la tarde brilla  
en el cenicero.

Alina se desnuda  
en azul, levemente.  
En su balcón, la luna.  
Ni se la siente.

(Esas maderas humildes que nos separan)

Aquí rezan el rosario  
piadosamente.  
Se oye el silabario  
murmullo de la gente.

Mató un hombre a su mujer  
en este cuarto,  
Estaba loco,  
O estaba harto.

Portal sucio de arrabal,  
Oscuras bellaquerías,  
Peladuras. Comadrerías,

(El asfalto taponando la tierra fresca, dolorida)

Tuberías, estacas,  
cañerías, ratas,  
muchas ratas.

El dulce esqueleto olvidado  
de un niño nonnato,  
junto a un gato,



## *Nocturno, III*

Es la madrugada  
y las entrañas dulces del pecado  
se han vuelto amargas.

De pronto, en el cerebro,  
me ha estallado Dios,  
y después de los incendios  
ha quedado todo en silencio  
como una ciudad bombardeada.

Sólo se oye el llanto de un niño.  
Y el aullido de un perro.

Y va amaneciendo.

## *Sin darse cuenta*

Tenía su alma con quien hablaba por las noches,  
un alma pequeña y rubia,  
además de todo.

Además de su trinchera y sus pantalones,  
además de aquel su ponerse las novias  
en el bolsillo superior de la chaqueta,  
además de todo  
eso, tenía su alma —como cualquier otro,

Como otros tienen una pipa  
de porcelana, o un corsé de una muchacha  
antigua y dulce; o cualquier otra cosa  
rara, él tenía su alma pequeña  
y dolorosa como algunas íntimas caricias.

Pero no se la veía nadie,  
pero nadie sabía nada,  
y por eso andaba tan a plomo  
ya que no tenía que llorar a solas  
y nunca le había estropeado  
un solo cuello de camisa blanca.

Y para él se había dicho como para todos:  
“Resucitarán con su misma carne”.

## *Sigan así*

Escribir un poema es fácil,  
pero ¿qué más da? Luego nos iremos  
a beber con los amigos  
o a bailar con altavoz  
y diremos por la noche: "A mí me duele algo".

Viajamos por la prosa entre gritos  
y vemos a los hombres que se llevan la mano a los labios  
y a las mujeres con una rosa en la boca  
y dos ensombrecidos mundos en los ojos;  
y de pronto: un perro atropellado,  
o sí dicen que han matado tantos hombres,  
o que un padre vive encima de sus hijos;  
y nosotros seguimos el camino de la cerveza más cercana  
porque nos quitan el sueño estas cosas  
y no podemos dormir algunas horas.

No es posible vivir entre señoras honradas  
y tirar piedras por las noches.  
¡Hay que ver cómo cuesta decir estas cosas entre los autos!  
¿Y quién nos va a poner bajo los pies un pedacito de hierba?

¿Para qué vamos a cansarnos?  
Nadie puede salirse de su chaqueta  
y es muy peligroso apearse en marcha  
como dicen los reglamentos.  
Es mejor que, catapún, chín, chín,  
sigan así las cosas.

Porque uno ya está hasta las narices.

## *El mensaje*

He escrito durante toda la noche a mis amigos, diciéndoles que no vengan a buscarme porque no merece la pena, porque estoy tan devorado que les sería imposible reconocerme.

Las largas cartas han partido en todas direcciones ¡Lo mismo da!, ¡lo mismo da!

Pero se han apresurado a contestarme como aves silenciosas destiladas por la noche, diciendo que venían, que venían desde muy lejos,

fatigados y sedientos, como lentos camellos que atraviesan el desierto.

Espero sin morirme a que me vean para cerrar mis ojos después de verlos, mis ojos tiernos de ver el mundo y mis brazos cansados de tantas primaveras. Espero a todos —son buenos hombres y mujeres— porque quisiera preguntarles algo, no sé qué, lo mismo da, quisiera preguntarles cuando estén todos juntos sobre mi cadáver.



Pero ellos son amigos y aunque les digo que no vengan,  
¡lo mismo da!, ¡lo mismo da!,  
vendrán furtivamente de las cuatro partes de  
la sombra,  
porque estoy tan devorado que no pueden re-  
conocerme,  
y no en balde hemos partido el pan de pequeños  
con la misma mano;  
y hemos perseguido el mismo aire;  
y todos nos llamamos lo mismo;  
y a todos nos gustaban las piernas de una  
muchacha  
jugando con el agua;  
y por eso vendrán, de uno en uno,  
a mirarme.

Pero yo tengo que preguntarles algo, no sé  
qué, lo mismo da, en esta noche inmensa,  
pero yo tengo que preguntarles,  
y me responderán seguramente,  
aunque la respuesta sea un poco de agua,  
por amor de Dios, o mi cadáver.





Ona emen iru olerki. «Educación y Descanso», deritzan batzordeak bere aizkenengo konkurtsoan sarituak dira. Benetan olerki bikainak.

## *Nere Izarrari*

“Bertso bida bear ditut kantatu  
izarrai: zer zaidan gertatu...  
korputzak ar dezan deskatsu”.

Beraz, gure aurrekoak ere senti zuten:

- 1) izarrai kanta-bearra.
- 2) zer gerta zaien esanaz.
- 3) korputzak ar dezan deskatsu.

Aien sentipenarekin bat, orixe bera egin dut nik ere. Iru gauzok azaldu olerki onetan. 1) Nere Izarrari kanta, 2) gerta zaidana, 3) neure atsedengarriako.

Aldi berean, IV'garren saillak onela eskatzen du: “Tema libre, relacionado con aspectos de la vida de la región vasca”. Euskal-bizitzaren agerkaletako bat dugu, beraz, auxe. Eta zoragarrienetakoa. ¡Izarrai kanta-bearra!

¡Gaur ere senti dezatela beste askok!

## *Nere Izarrari*

“Bertso bida bear ditut kantatu  
izarrai: zer zaidan gertatu...  
korputzak ar dezan deskatsu”.

Arratsik arrats zeru urrutian ñirñari,  
maite-kupiraz zagerkidan Izar argi:

beste askotan legez natortzu gaur ere  
ixilmixil bat izan nairik zurekintxe.

Aski izaten dut leiotik tinka (1) zuri so,  
biotz-axanpak (2) jaulkiz izketan jartzeko,

Orduonean zindudan, bai, aukeran jo,  
nire ixkutuak axaltzeko aboz-abo.

Zuk ez bai'duzu, lurtarrok lez, iñor saltzen,  
aditu-ala ixñlik duzu gordetzen.

Deitzen dizudan bakoitzean: “¡Nere Izarra!”,  
darantzuidazu: “maite auf, seme lurtarra”

---

(1) Tinkatu, igual a pararse, apostarse.

(2) Cuitas.



ta amen zatozkit ainbeste luzeko bidez  
lagun gaixo oni "Gabon" ematera maitez...

Maitasunezko zure errukiaren argitz  
goza didazu zuk bekokia amaika aldiz,

biotz-kezkaen sarigarritzat, il-ondo, z,  
zaudeneko ortan Zeru bat dala adirazoz.

On ta otxana zera, zerutar argia,  
on ta otxana ta ixilla ta maitatia...



...Gaur, baña, Izarño maite orrek ba-zeneki  
zein beste dudan atzotik gaurko ikuspegi! (1)

Gogamenaren ortzeak odeirik ez dit;  
bat-batez, samin danak poz biurtu zaizkit.

Pakea sor zait, oskarbi orren pakea,  
Jaungoikoaren zolitasunez betea.

Nire baitako laiotzean azterkari,  
goi-argitara ona zer dudan nabari:

Samari'ko osin ura, Sikar'ko iturria  
eguzkitan, ta Yesu bertan exeria

antuxiñetik bere Ur bizia eskeñiz  
"Edan —esaten—, ez aiz egarriko berriz"...

---

(1) Panorama.

Eskale antzo urbil natzaio albetan; (1)  
edan dut, edan, Jainko onaren eskutikan...

Ta bertan... mundu guzia arkitu dut berri!  
Oro garden, bai, oro iztun, maitagarri!...

Ez nuen uste, ez, onen edergarria  
zitekeanik sor zaidan egunsentia!

Beste begiz dakusat orain izadia!  
Bestelako biotzez maite dut bizia!

Atzo miñarren negarrik ezin zeridan.  
Ta gaur pozarren malkoa dut begietan.

Zure susmurra (2) berbera gaur zoliago  
aditzen dizut, ta ulertzen obekiago.

Millaka izarño zaudete betiraunean  
giza-biotzak zuenganatu naiean...

Biotzak diraust, Zeru eder orren pean  
nola gizona onen gaizto ditekean...

Millaka izarño Jainko-geznari or ernai...  
Baña satorrak lur-zuloa baizik ez nai.

Ez ote, griñaz lañotuta dagolako?  
Ez ote entzungor zuen mintzaira aditzeko?

Ezin ulertu, Zeru eder orren pean  
nola gizona onen gaizto ditekean!...

---


(1) Con ansia.

(2) Confidencia.

Zuk beintzat jarrai niri izketan, Izar maite.  
Gaurkoz alare... Agur baña biar-arte...

Emen itxoingo dizut, gau ontan bezala.  
Ta gaur baño re ohea arki nazazula!

...zure irudira nakusazula... argia,  
on ta otxana, ta ixilla, ta maitatia...







## *Izaki Abestia*

«Inviolabilia enim Ipsius, a creatura mundi, per ea  
quae facta sunt, intellecta, conspiciuntur».

Rom. 1-20.

Ona, arrats gorri, udazken eriotz,  
Sutan dijoakit, —ala nere biotz—  
Sutan dirdirakor laño erraietan,  
Argi-urre naspil nere begietan...  
Izaki maitea, Jainko naiak nakar.  
Otoitz egarri au zuk berdindu bear!  
Otoitz xurru-murru, barne zimikoa  
Ausnartu nairikan mendira nijoa.  
Ler zorian nago egi-min maite-min...  
Utsaren leloa: besarka nai t'ezin!

... ..

Zelaiburun eder zozoak txiruli  
Bere azken agur Jainkoari dagi.  
Baserri ke urdiñ, mendi itzal luze  
Illunabar mami: argi, oler, aize.  
Dena zoragarri... Zantzuren bat datza:  
Susmo biziz dakust Jaunaren'kerantza.  
Oro biur nadin izaki maitale  
Gerosle leiatsu, Asis'ko eskale!  
Zantzu oien gose nere zentzu legor  
Izate eder muñak aztar naiez dator.  
Muñ au izakian ereñirik dago  
Zantzu bat dagernez ainbat sakonago.  
Sakon kabitxoan maite zantzu kutun,  
Sakon iturri garbian apaltasun.

Pagoak dager liraintasun ezea,  
 Gauak ezereza illundiz betea.  
 Gauz denak dagite Jabearen berri  
 Loreak, aizeak, oiur zoragarri.  
 Eder ezak Jauna, izar dirdir goiztar,  
 Hurritxoaren mintzo zerutiar...  
 Izaki maitea: mintza atergabe,  
 Goretsi Jainkoa zeru-lurren Jabe.  
 Jainkoa'gan murgil, eder zorabio  
 Nere barneari atsedean dagio...  
 ... ..  
 Illuntzen eguna, dena itzalaldi.  
 Bañan biotza nik maitez begiz gairdi.  
 Ametsen bat ote izaki margoa?  
 Margoa baleike; ez nere leloa.  
 Maite-miñ egi-miñ egunak igesi,  
 Gauak —itsu nabil— eder miña azi...  
 Utsa naizela ta, ontan bear etsi:  
 Izaki abestiz Jainkoa goretsi!



## *Nere Zoriala*

«Ez dezu ikusten goizean, eguna argitzen  
danean...»

Osto ta abarrez xamur gordeta,  
uso-kabirik umez gainezka,  
ez al dezu iñoiz ikusi?  
Alaxe det nik nere kabia,  
azal ta barren oso zuria.  
O!, nere asaben kabi!

Eguzkiak goizez, naspil zoroan,  
biotz-maitale lerdan bait-litzan,  
gartsuki musu dagio...  
Ta aren miñetan, gaez izarrak  
sorgin-ipui ta eresi zarrak  
kukurumix jo oi dizkio.

Aurrez arkaitza, atzez basoa,  
ibarra bean, goyan soroa,  
bi esitxoren artean...  
Gogait-zarataz osoan ater,  
berrogei urtez —ez iñoiz asper—  
emen bizi naiz pakean.

Itxuraz, urrun bizi naiz emen;  
baña orrela iduri arren,  
ez nauzu iñolaz bakarririk...

Zaunkari zoli ta jatun bikain,  
bi zakur txiki ditut atezain.  
Ez det iñoren beldurrik.

Ene aitonen egoitz zuria,  
seme mardulen lore-ontzia,  
maite zaitut nik gogoan;  
ta ainbat arduraz ayek esana,  
ayekandik nik gaztez jasona  
ez det aiztuko beingoan.

Emaztea det guztiz lerdena,  
aurki nezaken eder-onena:  
urrezkoa du biotza;  
naita neketan, betikoz alai,  
etxekoi, maratz, lanerako gai:  
merezia du buruntza.

Ekarri dizkit zazpi semetxo,  
ederragoak eguzkia baño.  
Oi, ayen zora-musua!  
Gorria dute mertxikarena  
edaturikan masail barrena,  
diruditela zerua.

Egunez landan jolaska bizkor,  
gauetz barnean ez daude lo-sor.  
Aur dira-ta, zer egingo?  
Zarrena ikasten asia dago,  
kaxkarrak eder dute artzaingo:  
zazpirak ditut itxaro.

Amona ere, ximur biguna,  
—on utsa da-ta, orok kutuna—  
ba-det oraindik etxean:  
egun bitartez lanean luze,  
garitza jorran iñor ez beste;  
ipui kontari gauëan.

Eliza mendi-oñean txairo;  
elayak dabiltz aren barano,  
atseden barik egazka...



Nere andre ta semeak lagun,  
igandez meza oi det an entzun;  
baita Jauna artu, aldizka.

Orrezaz gero, etxean det nik  
ongi izateko aski gauzarik,  
gogoia alaitzeko zernai:  
oe, arasa, maindira, kirru,  
sukalde, laratz, suil, pertz, maskelu,  
goi ta be, zenbat oroigai!

Baita okullu-barne ba-dira  
—arto ta elbiltz beti begira—  
bei, idi, zekor, txerri ta asto;  
ardi zuriak ere ordekan,  
gaucz gorderik egunez larran,  
ba-dute ume ta esne naiko.

Zeru-altzoan zurbil izarra;  
eguna ez da oraindik urra,  
ta oillarrak kukurruku...  
Oe bero ta semeak utziz,  
sorora noa lanean goiz-goiz.  
Goiz-lanak bai dakar zitu!

Azil eltzean, lurra goldetu,  
eta galazi karez zuriztu  
eskuz jaurtzen det gogotik...  
Negu izan arren, lanik ugari:  
esiak jaso, larrak ebaki;  
ez naukazu iñoiz geldirik.

Otzaren aita eorts ondoren,  
udaberriak, naro ta lerden,  
neskatx azia dirudi...  
Soroa eze, edur sagasti,  
baratza liliz, zozo kantari,  
lan-uts biur da erledi.

Erein ta jorra, ebaki ta jo,  
kutxetan gorde, errotan eyo,  
ba-du ogiak lar neke.

Ala ere, ez naiz ni aspertuko;  
seme-alabak janaritzeko,  
          lanean pozik nabilke.

Arto ta pagotx, arbi ta garo,  
aza ta illar ba-ditut oindiño  
          bakoitza bere garaiez.  
Baita dolara bete sagardo,  
ta iru bat upei txakolin gozo  
          eder zaizkit udazkenez.

Beude besteak uri ta kale...  
Oyan ertzean gu pozik gaude,  
          ezerk utsik eman gabe...  
Barren darama nork bere adu:  
nerea onez nai nuke zaitu,  
          lagun seme ta emazte.

Oi, aitz arteko nere biztoki,  
urre gorrizko jantziz aundiki,  
          antxiñakoen aterpe!  
Neguz itxaro, poz bete udalen,  
nere lor-miñen arintzaile urren,  
          biotzez zaitut nik maite.

Ta aiton maiteena jarraiz ekandu,  
emen nai nuke bizi paketsu,  
          zure magalpe narean...  
Ta ilkor bizia itzal ondoren,  
bukatzen ez dan zeru-atseden  
          goiz-argi zuri betean.



## BIDEZ-EIDE

*Etxaide'tar Yon'ek euskerara emana*

ASKIZU

*Elcano'ren ilburukoari oar'bat*

Zumaia'ko kai puntatik begiratuta, itxasegiko bideberri gañean goi-bera ebakitako itxasaitzen gañaldean agertzen zaigularik, Askizu'ko ikuskizunak ba'du begientzat atsegingarri. Askizu'ri begiak lotzen zaizkio ugin lertzearen otsa sortzen da amilpe ondoan ikusirik. Ezta Gipuzkoa'n nekazari erririk itxas-egiari ain urbillik. Ortixe, ain zuzen ere, bere zoragarritasuna.

Aspaldi nenbilkin Askizu'rako gogoak, Gaur, bete da nere leia. Udaberriko goizaldega lañoak artu xamarrik egonarren, bero zan. Zarauz'tik mendiz irtenda, Meaga'ko gañaldetik Getari'ra yeixten dan bide zârreraño eldu naiz. Illerri esiak beratxuago urbil-urbillik ikusten dira bi malkorren artean. San Anton'dik milla bateratsu goleta bat zealdoka ari zan aize oialak bilduta.

Bidenagusi zârra alde bateratuz, Getari ta Askizu'ren babesean dagon ibartxoan sartu natzaizu. Bazterr aiek barrenaldeko lurgiroa dariote, baño, ontaz gañera, sulpatoz ezetutako mâstien margo orlegi-urdirindak begiak atsegintzen ditu. Kirkirrak berriz, alderdi artaz yabeturik daude ots berdiñetan kantari. Baserri batetik sega zorrozteko malluyokaren otsa zetorren. Ikuskai (1) onek nolabaiteko biotz-barneragarri zerbait ba'du.

Maldaren gañaldean datza Askizu, antziñarr itxurako elizaren

---

Oarra: BIDEZ-BIDE onen bigarren atalean (aurtengo urteari dagokion lenengo EGAN), 31'gn. orrialdeko azkeneko errenkan asita lerro nâste aunditxo bat sortu ziguten irartzerakoan. Ona emen bere zuzenketa: «Kale aizeak ezkata usai ta ezetasuna dario. Liska, gezal, ke, arrai erre ta ga-



orma goiti ta beltzaranak nausitzen zaizkiolarik, Beraren burugarri kanpairik gabeko bi zulodun kanpatorrea dauka. Tellatu ondoko orma zirritutan ernetzen zaizkion belarr erantsigarriak zàr itxura bi-ziagotzen diote.

Bere inguruan, dozena erditsu bat baño geixeago basetxe biltzen dira aratz aratzik, Yauretxe zàrraren ondoko zelaiguneraño iritxi-rik bakarrik ikusten da itxaso zabal-zabal bere oñetan.

Itxasegiko berexgarri guziak argi-argiro nabari ziran, Deba ta Zumai arteko arlau arbeltsuak nabarmenduz batez ere. Azken uri ontako kaian ontzi bat itxasgoraren zai zegon barra igaro àl izateko.

Askizu'ko eliza txikia zegon. Age zàrrak gurutzaturiko estalpe atarian mutiko batzuk pelotan ziran ari. Beroitako batek, màtsarr kerizpetan dagon etxera narama, bertan bizi baita serora. Ate gañean erantsitako txapa batek onela dio: "Teléfono". Onen gañean ezarritako beste zurezko ol batek tabako saltokia aditzera ematen du. Bai erakustoki goitiak, bai lerro-lerro yarritako bonbillak eta baita igurtziaren igurtziz garbitutako mai zuri biak erriko ardanegiaren tankera damaiole iñundik ere.

Serorak, txakolin aboragarri bat atsegiñez ekarri ondoren, ardanegiko etxeoandre ere bera baitegu, eliza erakusteko gertatu zait. Ijito sendi bat baitabil urrean arrapakari. Meza, soilki igandetan izaten omen da, zortziretan, Getari'ko apaiz baten ardurapean, Arratsaldean berriz errosarioa, bera dutelarik esale.

Eliz zàrrak, sitsak erdi yandako korupean ate medarr bat ba'du ta andixek dauka sarrera. Barreneko illunpetan aurrena nabari diran gauzak zarr tankerako bataio arria ta bost eunkitsuko aitortegi oies bat dira. Damuak ekarritako ainbeste pekatarien igurtziaz, dizdiratsu ta leundurik gelditu da antziñarr usaidun aitortegi auxe.

Era berriko ikutu batzuk izan ezik, lenen aldiko usai dariote eliz ontako gauza guztiak. Argia, gotarr tankera duten leio batetik eta tellatuko leiotil batetik sartzen da. Gotarra da aldare nagusian bere soin-adarr luzeaz elizburu agertzen zaigun Yosu gurutziltzatua ere ta gotarrak dira ere Kisto'ren bi aldetara dauden Yon deunaren eta Andre-Mari'ren nortasun biziko irudiak.

Ama-Birjin onen soñekoaren tolesak asmatuki daude txit. Elizak Martin Deuna'ren izena darama, bera baitzan erdi garaian lurralde

---

tzartuaren usai giroa nàsiki datoz. Sapailloak, legortzeko yarkiz betarik dagerz: urdin margozko marifiel yantzia geièntsu».

(1) Aurreneko bi atalak aspalditxotik idatziak nitun eta nere gogara ikutzeko betarik gabe argitara ekarri bear izan. An, besterik ezean «erriku'kin» «rabilli nun «paisaje» adirazteko. Itz onek ordea ez nau ase-ase egiten, egiten, gaizkitxo eratu ote nun ere bildurr bainaiz, eta Euskaltzaindiak gauza oberik eskuratzen ez digun artean «ikusgai» (materia a con-



auetako donerik errikoiena, Zaidizkako bere irudia eskalearekin bere kapa erdibanatuz aldaregañeko (2) erdiko zuloan dago.

Yauretxeko eliz-yazkiak ikusteko gogoia agertu diot serorari. ain zuzen ere orretxegatik eldu bai-naiz onontzaño. Andreak sakristiratu nau berealaxe. Illuna, ezea ta txikia da berauxe ta bertan kutxa bat dauka arri lodi batzutan oñarturik. Ez da ordea nik nai nunik ageri.

Alabaña, ekiñaren ekiñaz, ba'narama, armario gixa yauretxearen ormak daukan utsune bateraño ta orduntxe agertu ziran nere begien aurrean sakristiko kutxan tokirik etzuten gañerantzeko eliz-yazkiak. Baño, oraingo aldian ere nere azterraldia alperrikakoa izan zan.

Bai baitago Elkano'tar Yon Sebasten'en ilburukoan itzez-itze onelaxe dion esakun bat: "Alaber, uri orren (Getari'n) lege-barrutian dagon Yondone Martin'en elizari amabi dukat urretan uzten dizkiot. kasulla bat, diakono, sodiakono ta bara bakoitzeko dukat baten balioa duen oial gorritzko kapa on-on bat erosteko. Amabi dukat auk iritxiko ezpa'lira aipatutakoak ordaintzeko bearr besteko osagarria yarri bizaio."

Ontarakoxe etorri nintzaizun Askizu'ra udaberriko goiz ontaz. Elkaño'k bere ilburukoan aitatzen dun Martin Deuna'ren eliza Askizu'koa baita. Bestalde, Getari'ko seme zaigun Berroeta-Aldamarr giputz leñargiak Soraluze'ri zuzendu zizkion oarr batzuk, au, Elkano'ri buruz egiten ari zan idazlan batentzat. Oarr auetan, Askizu'ko elizan dagon irukoi (3) batez mintzatzen zaigu ta Elkano'k egin emaitzaren oroiz egiña ote dan dio berariz. Soraluze'k idatziriko Elkano'ren edestia 1872'gn. urtekoa da. Berroeta-Aldamarr'ek aipatzen ditun eliz-yazkiak oraindik iraungo ote zuten irudi zitzaidan.

Berriro ere ekin diot serora on-onari, iñundik ere, erriko zarrai entzunik, Askizu'ko elizak noizpait izandako gorri margozko eliz-yazki zâr batzun berri ez ote dun.

Nere itzaren ziurtasun eta siniskortasunak emakumea oldozkor yarri dute. Azkenik, bere oroimen zârrak urratuz, urteak dirala lizunak eta sitsak erdi yandako eliz-yazki zâr-zâr batzuk baratzan berak erre zitula apaizaren aginduz, esan zidan...

---

templar) erabiliko dut «paisaje» adirazteko ta «ikuskizun» (acto de ver) «vista» esateko.

(2) «Retablo» esan nai dut. Lengoan «maigibel» eratu nun baño baztergarri deritzat. Besterik ezean «aldaregain» darabilket orok ulerr dezaten.

(3) Terno. Iru apaizentzako yazkia.

## BERTSOLARIA

Eragingarriari erraz igarri leioke. Erriburuan euren eginbearrak bete ondoren etxeruntz dioazelarik, "Costa"koa deritzaion burnibideko bidaztiak askoz ere iztunagoak izan oi dira yoan aldian baño.

Arrats ontaz, Amara'n nerearen aurreko exerlekuan bi baserritarr exeri zaizkit berrogeitamarr irurogeitsu urtekoak. Bakoitzak soka bana daramate bildurik. Gizon auek, beren txekorrak Donosti'ko ildegira eramatetik zetozen noski. Baikorr eta esale zeuden txit. Trena ertetzearekin ekin diote kantatzeari alkarr artuta. Euren pozaldia bagoi guzikoai erantsi zioten laister.

Sailka abestea Euskalerrri'ko oitura zindo ta kistar usaidunekoa da.

Gure itxasegiko arrantzaleak uste ezik sagardotegitan bildurik sortu oi dira kantari taldeak. Taldeok abestiai erasten dioten abesgiro ta guritasunak, gure Erriak musika gaietan duen goi-mailla aditzera ematen du.

Gure errialdeko ikuskai lanbrotsuari ain egoki atxitzen zaizkion abestiak pizten dituzte giza-gogoak. Euskaldunak, sabela aserik badute nai ta nai ez kantatzeari ekin bearr. Eztakit zein neurritaraño zaien ongarri, baño euskaldunak beren buruak ertilari derizkiote sabel esteak beterik nabaitzean.

Euskalerrria eresizale da izatez eta bere abestiak konta eziñekoak dira. Euskal-abestien bilkude oso bat egingo ba'litz zurturik gedituko giñake. Danetatik ba'dago: erlijio gaietatik asita irri bertsotaraño nai besteko aukera; erromantiko ta oroimiñezko bertsoatik maitasuna darioten bertsotaraño; ardo-zalien bertsoak eta yanari lagungarriak. "Boga-Boga" abesti errikoia adibidez, tripazaien yanari lagungarri izan oi da. "Boga-Boga" bezelako bikarbonatorik ez omen.

Ekin dezaiogun gureari. Trenak Lasarte'ko geltokira irixtea egin du. Balazten irrintzi otsa ixiltzean, bitako baserritarr batek, bertsolari iaio izaki nunbait, ekin dio bertso lanari. Inguruko yendeari uste ezeko pozaldi sortu zaio. Azkeneko âpaldiaren doñua belarriak ya-oberri zutelarik, bere lagunak, urdurixamaturik eta eztarriaren latza legunduz, eraso dio erantzun ezfenkorr batez. Biotzen betegarrizko



oiu bat sortu zan orduantxe bagoian. Bi bertsolariari inguratu zaie berealakoan exerleku gañetatik eta igarobidearen luzeran entzule sail aundi bat.

Bertsolariak, aditzen emateko almen arrigarria ba'dute. Sekula ez dute bakarrik kantatzen, yendea bearr beti baranoan. Abesten entzutea bezin ikuskarri, gogo-gogoz entzuten ari diranai oartzea izan oi da.

Nik, Zarautz'en utzi ditut nere bidelagun biak. Berak, aurrerago yo zuten. Ordun arte ekin zioten eta ba'liteke orain-oraindik ere bertso lanean aritzea. Alkarri zirika ekin diote euren basetxe, emazte, seme, alaba, lanerako gogoia, asmoak, zaletasun, zalekeriak eta beren ukullutako abereak berak oñarriztat arturik... Guztiauek kantari.

Bertsolariari ulertu ál izateko, bearrezko zaigu nolabait ere aurr gogoaz yabetzea. Liburuak yakintzaren yabe egin dizaigukete, baño, ez digute erakutsiko parrerik egiten eta aurrak izaten. Erriaren olerkari abei ongi igarri ál izateko, antziñako izate gogoaz bearr degu yabetu apurtxo bat. Au ezta lenen garaiaren makurgarri, guztiz bestera haizik. Antziñarrak zailtasuna billatzen zuten eta berari buru ematen atsegiñez betetzen ziran.

Gu, elertigiro biziegian ezi gaitute. Ezin zuzenetsi ditzakegu, beste izate bat bizi baita gugan. Antziñarrak, itz soillezkoa neurriratzeko (bertsoan yartzeko, alegia) gai dira, naiz ta erretorikako ikaskizun baten axolarik ez izan. Gogo xaloak zuzenetsiko ba'ditugu, nolabait ere xalotasun ortaz bearr dugu yabetu. Abesti baten on-gaia ezpaita metro batekin neurtzekoa.

Gure errialdeko idazle bik,—Lhanda'tar Kepa'k ta Lekuona'tar Imanol'ek,—goretsi dituzte txeraz eusko-mendietako bertsolari apalak. Lenengoak, bere "Le Pays Basque à vol d'oiseau"n onela dio: "Euskal-erria elerti gabeko erritzañ yoa dalarik, bertsolariarik geienak berak ditu. Erririk elertizalienak, gutxi edo exertxore idazten ez dutenak dñra. Ez gaitu arritu bearrik. Bai baitira ludian erruzka gai idazkizunarekiko alkargorik gabe. Irarkizunak oroimena nagitu egin du. Antziñarrak oroitzari eutsi bearr zioten. Gaurko gizonok elburu gabetzat baztertzen ari gera ariketa nagusi auxe. Aiek, guk baño askoz lenago igarri zioten neurri ta oskidetasunaren indarrari oroimenaren gorde erazteko.

Euskaldun bertsolariaren gaitasunik arrigarrienetakoa bere oroimenaren sakontasuna da. Lekuona'k, "La poesía popular vasca" deritzaion bere liburuan, Oartzun'go bertsolari batek Santa Genoveva'ren bizitzari milla ta irureun bertsoko poema bat jarri ziola esaten digu. Iñoiz etzion buruak eman bertsolari arri bere poema idaztea. Bearrik ere ez. Oso-osorik gogoratzen zitzaion lenengo apalditik azkeneraño arrigarritzko zeaztasunez.

Bertsolariari abestia erne egiten zaio. Legetzat yo dezakegu bertso-  
lariagan kanta erne bearr auxe. Onekin, bere edertiari buruzkoak  
esan ditugu.

Bertsolariak zintasan eta xalotasunez beterik ekiten dio abesteari  
ta sarritan, uste ezik, bere aunditasunari dagokion neurrira irixten  
dan tarteak izaten ditu.

Udarregi, Usurbil'go bertsolari zârra iltzearr zegon bere basetxean,  
Erribidean gora don Mateo zeritzaion apaiza zetorren soiñerdiko kapa  
yantzita Yauna erakarki. Eliz-zaia, Olio-Donearen boltsa bularr zearka  
zularik, aurretik zetorkion txintxarria astinduz. Yaunak, Udarregi'nera  
yoaki igaro bearr zun baserri ataritan, gizezkoak, oitura danez,  
ezko lodiak eskutan zai zegozkion; emakumeak berriz, beren buru  
zapi beltzak yarrita, Gizonak, baserritik baserrira txandaka lagun-  
tzen diote. Azkeneko txandakoak eldu ziran Yauna'rekin bertsolaria-  
ren etxera. Apaizak iragan zun sukalde zabal eta ukullu arteko iga-  
robidea ta geldiro-geldiro zurubi illunean barrena igotzen asi zan.  
Mandioari aurrez-aurre zeuden getetan ate bat zan zabalduxe, iltzerr  
zetzan bertsolari zârrenen egoitza txukunean sartzeko. Barruan, zamau  
zuri batez estalitako mai baten gañean Yosu gurutziltzatu bat bi  
kandel izekiren artean. Alboan, maindire zuri'tartean oeratuta, ber-  
tsolariak, lei sutsuz, lurbira ontatik yoanaldia egiteko indarra  
itxaro zun.

Oraintxen etorri-zetorren. Urrats ota, etxeko ixiltasan ikaraga-  
rrian dunbots egiñaz, gero ta urrerago nabaitzen zun. Yauna bere  
gelan sartu zan unean, agurea, ezinbesteko ekinaldi batez zutitu zan  
neka-neka. Bere begietan biozkada sakon bat nabari zan; ba'zirudin  
zerbaiten ikuskizun izan zula... Yaunen Yauna bere gelaraturik zan.  
Ilzorlan zetzan bertsolariak, eskerr paregabe ontaz astoraturik... kan-  
tari agurtu zun bere Yauna.

Beste batez, Pedro Mari Otaño'k zun aldi,—euskaldunetan lirikorik  
iaioenetakoa berauxe izan dugu,—Argentina'ko lurraldetan denbora  
luzea egin ondoren bere yaiotetxera eldurik, Pedro Mari bere errira  
eldu zanean gau illundu zun. Bere nortasuna iñori agertu gabe, oler-  
kariak ekin zion bereala bere baserriko bideari. Urduri zan bere  
etxeko atariari kerizpe ematen zion intxaurrondora eldu bitartean.  
(Auxe zan, biotz ukigarritzko bertsoan Pampa'tik aipatzen zun in-  
txaurrondo kerizpetsua). Pedro Mari, pozikarak biotza estututa aurre-  
ratu zan geldiro-geldiro. Etxebarneko abotsak berexten zitun arrez-  
kero. Une artan aparitan asten ziran nunbait, urrutiko lurretatik  
etorriarik albo-alboan etxekorik lezaketenik iñundik igartzeke. Larri-  
kara bizi bat nausitu zitzaion Pedro-Mari'ri yanari kutsugarria abo-  
ratzeko mai artara bertara biltzen zan garaia gogoratu. Atea itxirik



zegon. Bearrezko zitzaion beraz, deitzea. Pedro-Mari'k estalpe eskatu zun... kantari.

“Joxe Bernardo nere osaba  
saludatzen det aurrena,  
orretarako eskatzen diot  
nagusiari baimena.

Ikusten naute ate ondoan  
orla gaizki nagoena,  
ate oiek zabal bitzate  
sartu nadien barrena.”

Pedro-Mari'ren agurran aixa nabaitzen da xoxik gabe etxeratu dala Ameriketatik; yoañ bezelaxe, gañean zeramanarekin soilki bertsolariaren izateari dagokionez. Joxe Bernardo bere osabak eta bertso-tako lagunak berealaxe igarri zion illobak zionari, Bere erantzunak egoki emanda, ba'du sentigarri xamur bat bukaeran.

“Kantu lanean ezagutzen det,  
nere illoba zerade;  
urte batzuek joanagatik  
gu ere lenak gerade.  
Atea ideki bakarrikan ez,  
ïgo zaitea gora're,  
berealaxe jantziko degu  
zu jaio ziñan oia're.”

Idazkeraren kezketan dabiltzanak, esaldia nola landuko ari diranak, ezin igarri dizaiokete bertsolariaren irudimen trebe ta biurriari. Aiek, irakurlearen adi-yabetasuna nai dute oso-osoro; auek liburu zabalik urrutietara begira gelditu ditezela dute yomugatzat.

Bertsolariak, alditxo batean bakarrik entzun dezaioGUN nai du. Gerokoaren axolik ez, Asketsi, ondorengo aldetasun onek lotsarik zorr ba'du, baño, diotenez, Homero era ontakoa omen zan: errizerriko kantari arlotea, letraren ezautasunik gabea bearbada, bere kantagaia erri berberaren gunatik zetorkiona. Homero'k edesten dizkigun gauzak erri koxkorretan gertatzen ziran geienbat. Euskalerrri'ko bertsolarien gixa, ardandegitan, plazetan, azoketan eta erri festetan abesten zun. Gero, bere bideari ekiten zion esandakoari garrantzirik emateke.



A DIEZ Y CUATRO MILLAS DEL  
CABO CARVOEIRO

( CUENTO )

Navegaríamos a doce nudos o así, catados a ojo, sin ayuda de la corredera, cuando cerró la noche. Bajé del puente y me tumbé en la Cámara a sosegar, pero poco duró la holganza pues los maquinistas encendieron la luz y se pusieron a rajar como bachilleres a voz en grito. "Rediez", dije, con los párpados aún tendidos de soñera, "iros a hablar a vuestra p... casa"; el repostero, que era bellaco y sisón, amén de cartagenero, volvióse para ocultar el cachondeo que le entró, pero los maquinistas me contemplaron con desdén. "No es este lugar para dormir; esto es la Cámara y las Ordenanzas dicen que sirve a los Oficiales de mis Ejércitos para su solaz en asuetos del Servicio...". "Qué Servicio ni qué p..."; me levanté, y como de costumbre, tropecé con la cabeza en el mamparo, retirándola con dolor; así, entre el pitorreo y regodeo de los maquinistas, salí de la Cámara con mi cachaza a cuestras, y me metí en el camarote. Eché el portillo y el ciego, tapé al perro con un sudadero que me servía de edredón, y rezando el Ave María me cogió el sueño y me quedé roque sin más.

Cuando el repostero me despertó, eché un ajo y miré la hora; las cuatro menos diez. ¡Maldita sea mi estampa, malage, qué vida tan perra!, con lo ricamente que yacía amodorrado entre sábanas, y ahora a entrar de guardia otra vez. No sé quien me metió a marino, yo que soy castellano viejo... Mientras me calzaba los calcetines, solté unas maldiciones destempladas, y viéndome en el espejo con la color demudada, la pelambreira desordenada y la faz ruín, se me escapó una víbora de sólo recordar a las niñas bobas que cuando le hesan a uno le dicen: "Si yo hubiera sido hombre, hubiera sido marinero..."

Al subir a cubierta, el Contramaestre se me acercó a quejarse del Condestable que no se duchaba nunca y olía muy mal. Yo no estaba de temple para donaires y le mandé a paseo a él y a los pies atufados



del Condestable. Luego me arrepentí y le invité a medio vasito de coñac.

El barco trepidaba entre piernas, como una yegua galana con paso de ambladura, igual que la alazana de mi casa de Covarrubias, igualito que ella. De vez en cuando la proa se apartaba de las Tres Marias, que ganaban el horizonte, pero se enderezaba al gobierno de la popa luego. Por arriba de la cabeza, el Universo entero, volteador y radiante, centelleaba en el cielo. De la banda de Estribor, la brisa, en extremo delicada, traía un regusto agrídulce de trigos recién aventados, y el relente arreciaba más que en noches pasadas.

Así que llegué al puente, se me acercó el Oficial saliente; era un jovencito enjuto de carnes, con voz afeminada, pelo bermejo y manos nacaradas y endebles de cortesana. No llevaba ni un mes de antigüedad en el barco y ya se enojaba cuando le reprendía por chinche y déspota con los subalternos. A mí, la verdad, me pareció desde el primer momento un alfeñique de esos que le apartan a uno del toro diciendo "dejarme solo" y después dan una espantada, dejando la lidia sin gobierno. Me solía tratar con deferencia, pero conuntuosidad y zalamería que me encoraban; la verdad es que no era santo de mi devoción, a pesar de pasar por protegido del Comandante de no sé qué barco de la Escuadra.

—“¿Hay novedad?”. —“No, nada de particular”. —“¿Dónde estamos?”. —“Al 10 verdadero y cuatro millas de Cabo Carvoeiro”. —“¿Has marcado farolas?”. —“No, por estima”. —“¿Por qué no has tomado un par de marcaciones?”. —“Psché... no soy tan minucioso y detallista como vosotros. Cuando no hace falta no hace falta. No hay corriente, ni viento, y la estima tiene que estar bien. Perdéis el tiempo comprobando y comprobando; es como el papeleo: pon que mando una instancia al Ministro, por ejemplo; tú le pones el sello de la Segunda Comandancia y un anexo, el Comandante otro...”. —“Será si está de buenas, que si le da la venada...”, le dije para tirarle de la lengua, y como era ppanatas y mansurrón, se ensañó con el viejo de a bordo, y lo desolló vivo. —“Bueno, calla ya de murmurar”, le dije seco y con cara de pocos amigos. —“¿Por qué me pinchas para que hable mal del viejo si luego te molesta?”. —“Para mandarte callar. ¿No te has dado cuenta todavía que puedes pedir cuando gustes otro barco?”. Al muchacho se le fué un color y se le vino otro y balbuceó que le habían embarcado forzoso y no voluntario. Se quedó tan embarazado que a mí me remordió la conciencia y cambié de conversación.

—“¿Velocidad?”. —“12,5 nudos”. —“¿Rumbo?”. —“270”. Salimos fuera de la caseta de derrota. —“Aquella farola por la amura de estribor será entonces Estribela, ¿eh?”. —“Claro, sin duda”. —“No se



ve la silueta de la tierra”. —“No, no se ve; el orto de luna es más tarde”. De pronto, sin saber porqué, di un grito. —“Trae el cuaderno de Faros, guardabanderas”. El Oficial saliente hizo un mohín de suficiencia, y yo busqué precipitadamente Estribela “Dos segundos de luz, cinco de ocultación...”, ya ni siquiera recuerdo las características. Levanté la mirada a la farola, y comencé a llevar la cuenta de sus destellos, batiendo los segundos con el dedo sobre la regla. —“Vamos... son ganas de perder el tiempo...”. —“¡¡Calla!! ¡¡Esa farola no es Estribela!! Algo raro pasa aquí...”.

En ese instante sonaron las cuatro campanadas de la hora. —“Te digo que no pasa nada raro; no le busques tres pies al gato. Está todo en orden. Me voy abajo”. —“Vete. Entro de guardia, ¡¡Timone!! ¡¡Toda la caña a babor!!”. La rueda giró entera, y la aguja del compás comenzó a moverse; no había caído el barco apenas a babor, cuando el serviola gritó desde la cofa: “¡¡Rompietas a Estribor. Por allí, mi oficial...!!”. No se veía nada, nada de nada. —“Que enciendan el proyector inmediatamente”, ordené, y a poco, la luz salió como un chorro de llamas, iluminando a estribor agua, agua y nada más que agua. —“¡¡Recorre el horizonte!!, ordené al electricista, y apenas orientó el reflector más hacia popa, sacó de la oscuridad bruscamente una Isla siniestra, inmóvil, amenazadora y lívida. —“De haber navegado media milla más al rumbo de antes, nos clavamos en ella”, dije entre dientes. Hubo un silencio agobiante, y noté que el Oficial saliente, el mequetrefe pelirrojo, respiraba históricamente como si le hubiera dado un parálisis, o se le hubieran reblandecido los sesos. —“¿Estás todavía ahí?”. Silencio; semejava agarrado o pasmado como un pelele. Por fin dijo: —“Oye, Zúñiga”. —“¿Qué?”. —“¿Qué va a pasar ahora?”. —“Un par de años en un castillo. No te vendrán mal”. —“Entonces... ¿habrá Consejo de Guerra? ¿Y se enterarán mi padre y mi madre?”. —“Anda, vete a dormir, anda, déjame en paz de lloriqueos”.

Quedé solo en el puente, y después de enderezar el gobierno me atizé un vaso de coñac que me calentó la caldera levantando la presión que andaba menguada; el pulso se aceleró, me sequé el sudor frío que aún quedaba, y me dije a mí mismo: “De buena nos hemos salvado, Fernando”. Encendí un cigarrillo, saqué el sextante, y me pasé la guardia observando alturas de estrellas. No hubo más novedad, a Dios gracias.

El Comandante me llamó la mañana siguiente. —“Zúñiga me dijo ¿hubo alguna novedad ayer noche?; a eso de las cuatro me despertó un cambio de rumbo violento. ¿Qué pasó?”. No vacilé. —“Mi Comandante, un pesquero sin lucés que venía a rumbo de colisión; hubo que maniobrarle”. El viejo asintió y dijo: —“Esos pesqueros son te-

ribles. Son terribles”. —“Sí, señor, son terribles”. —“Imprudentes”. —“Sí, señor, imprudentes”. —“A propósito, Zúñiga, quiero hablarle de algo reservado. He observado que a bordo de este barco no se da el compañerismo en gran cantidad. Por ejemplo, Meneses es un Oficial novato y usted, Zúñiga, es demasiado duro con él. Es buen navegador, y todos tenemos defectos”. —“Sí, señor”. —“Y si le trata usted, verá que a pesar del pelo rojo, no tiene mal carácter el chico”. —“No, señor”. —“El compañerismo es la primera virtud militar. Trate de inculcarla a sus subordinados. Recuerdo que una vez, siendo Comandante del “Reina Regente” don...”. —“Sí, señor; sí, señor; sí, señor”. El viejo terminó su rollo con expresión satisfecha; los ojos le brillaban de ternura y acariciaba al gato con delicadeza femenina. Estaba contento de sí mismo y de la vida en general; aquella letra picuda y morena, escrita sobre un papel perfumado, le amansaba y tornaba en Ursulina. Así era nuestro viejo de sentimental y enamorado.

Al bajar a la Cámara, Meneses me miró angustiado. —“¿Qué?” —“Que escribas en el cuaderno de Bitácora que ayer a las cuatro se metió toda a babor por una imprudencia temeraria...”. Meneses se quedó lívido. —“¿Tengo que poner que la imprudencia temeraria fué mia?”. Yo le dejé agonizar un par de segundos; el Camareta cantaba una tonadilla de Alicante; los ojos canicientos de Meneses se apagaron con el pánico. Entonces le dije simplemente: —“La imprudencia temeraria fué del pesquero que tuvimos que maniobrar. ¿Comprendes?”



PUBLICACIONES  
DE LA  
REAL SOCIEDAD VASCONGADA  
DE AMIGOS DEL PAIS

---

MONOGRAFIA DE D. XAVIER MARIA DE  
MUNIBE, CONDE DE PEÑAFLORIDA  
por Gregorio de Altube.

LA EPOPEYA DEL MAR,  
por M. Ciriquiain-Gaiztarro.

PASADO Y FUTURO DE LA REAL SOCIE-  
DAD VASCONGADA, por José María de  
Areilza.

HISTORIA DEL MONASTERIO DE SAN TEL-  
MO, por Gonzalo Manso de Zúñiga  
y Churruca.

ELOGIO DE D. ALFONSO DEL VALLE DE  
LERSUNDI, por Joaquín de Yrizar.

BREVES RECUERDOS HISTORICOS CON  
OCASION DE UNA VISITA A MUNIBE,  
por Ignacio de Urquijo.

REVISTAS

BOLETIN DE LA REAL SOCIEDAD VASCON-  
GADA DE AMIGOS DEL PAIS.

Ejemplar suelto: 15 Ptas.

Suscripción anual: 40 »

EGAN: Ejemplar suelto: 4 Ptas.

Suscripción anual: 14 »

Suscripción anual conjunta a BOLETIN y  
EGAN: 50 Ptas.

MUNIBE.—Revista de Ciencias Naturales.  
Número suelto: 7 Ptas.

---

Redacción y Administración: Museo de San Telmo  
SAN SEBASTIAN





ESCELICER, S. L.  
SAN SEBASTIAN